

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

URBIDE ARABAKO UR PARTZUERGOA- CONSORCIO DE AGUAS DE ÁLAVA

Armiñon, Arraia-Maeztu, Arratzua-Ubarrundia, Barrundia, Berantevilla, Bernedo, Burgelu, Vitoria-Gasteiz, Iruraiz, Kanpezu, Kuartango, Lantaron, Legutio, Erriberagoitia, Erriberabeitia, San Millan, Gaubea, Harana, Zanbrana eta Añanako Udala partzuergokoak diren udalerrietako kontzejuetan 2024ko ekitaldiko laugarren hiruhileko edateko uraren hornidura eta estolderia zerbitzuen prestazio-tarifei dagokien kontribuzio-errola

Armiñon, Arraia-Maeztu, Arratzua-Ubarrundia, Barrundia, Berantevilla, Bernedo, Burgelu, Vitoria-Gasteiz, Iruraiz, Kanpezu, Kuartango, Lantaron, Legutio, Erriberagoitia, Erriberabeitia, San Millan, Gaubea, Harana, Zanbrana eta Añanako Udala partzuergokoak diren udalerrietako kontzejuetan 2024ko ekitaldiko laugarren hiruhilekoko edateko uraren hornidura eta estolderia zerbitzuen prestazio-tarifei dagokien errola prestatuta, publikoarentzat ikusgai jartzen da hamabost egun balioduneko epean, ALHAOn iragarpen hau publikatzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita, interesdunek komenigarriak kontsideratzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ditzaten.

Epe hori igarota, erreklamaziorik egongo ez balitz, errola behin betiko onartutzat emango litzateke.

Edateko uraren hornidura eta estolderia zerbitzuen prestazio-tasen kobratze-epeak:

A.) Epe boluntarioa: 2025eko martxoaren 28tik maiatzaren 27ra, biak barne. Helbideratutako ordainagiriak baimendutako finantza-erakundeetan kargatuko dira 2025eko martxoaren 28an.

B.) Kobratzeko epe exekutiboa: 2025eko maiatzaren 27tik aurrera hasiko da epe exekutiboa, errekareru exekutiboak sortuz, premia murriztu eta premia arruntekoak, Arabako Zerga Orokorri buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak adierazitako epeetan.

Hala adierazten da, guztiek jakin dezaten.

Ribabellosa, 2025eko otsailaren 28an

Presidentea

JULEN IBARROLA GOBANTES